

Hautapen prozeduraren garapena

Hautapen prozesuak bi aldi izanen ditu: batetik, lehiaketaldia, non izangaien merezimenduak baloratuko baitira deialdi honen I. eranskinean ageri den merezimendu baremoaren arabera; eta bestetik, oposizioaldia, non kasuan kasuko irakaskuntza espezialitateko berariazko ezaupideak, gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko behar diren tekniken ezagutza kontuan hartuko baitira. Halaber, praktikaldi bat egin beharko da, hautapen prozeduraren parte izanen dena.

Epaimahaiak edozein unetan eskatzen ahalko die izangaiei beren nortasuna froga dezatela.

Hautapen organoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ehuneko 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa frogatzen duten izangaiek ere gainerako parte-hartzaileek bezalatsuko aukerak izan ditzaten ariketak egiterakoan. Alde horretatik, pertsona horientzat, eskabidean hala adierazi dutenean, eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren aldeko txostenaren arabera, behar dituzten zentzuzko egokitzapen eta doikuntzak ezarriko dira ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik.

1.–Lehiaketaldia.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsi ondoren, I. tituluko seigarren oinarrian aipatutako organoek izangaiek frogatutako merezimenduak baloratuko dituzte, deialdi honen I. eranskinetako baremoari jarraikiz.

Merezimendutzat hartuko dira irakasle lanetan izaniko esperientzia, prestakuntza akademikoa, etengabekoa eta beste merezimendu batzuk.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatzen diren merezimenduak baizik ez dira puntuatuko, I. eranskinean adierazten den dokumentazioarekin batera aurkezten badira.

Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak baremoko apartatu guztien puntuazioak batuko ditu eta merezimenduen behin-behineko balorazioak onesten dituen ebazpena argitara emanen du www.nafarroa.eus helbidean, deialdiaren fitxan.

Interesdunek erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte, edo/eta merezimenduak zuzentzeko aktetan jasotzen diren akats formalak zuzendu, haiek argitaratu eta 10 egun balioduneko epean. Erreklamazioak edo akats-zuzenketak Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari zuzenduko zaizkio, eta www.nafarroa.eus helbidean aurkeztuko dira, deialdiaren fitxan.

Era berean, Administrazioak, erreklamazioak aurkezteko ezarritako epean, ofizioz zuzentzen ahalko ditu izangaiei emandako behin-behineko puntuazioan hautemandako akatsak.

Izangairen batek ez baditu akats formalak epe horretan zuzentzen, eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

Izangaiek eskaerak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatu ez dituzten merezimendu berriak ez dira inoiz kontuan hartuko.

Erreklamazioak aurkezteko eta zuzenketak egiteko epea bukatutakoan eta haiek ebatzitakoan, merezimenduen behin betiko balorazioak onesten dituen ebazpena argitaratuko da. Balorazio horien kontra gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal dute interesdunek, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.–Oposizioaldia.

Oposizioaldiak aurkezpen ekitaldi bat eta bi proba izanen ditu, denak baztergarriak. Bigarren probara pasatzeko, izangaiek 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu lehenengo proban.

2.1. Aurkezpen ekitaldia.

Epaimahaiaren edo hautapen batzordeen aurrean eginen den aurkezpen ekitaldi batekin hasiko da oposizioaldia; izangaiek bigarren probako A zatian aipatzen den programazio didaktikoa eraman beharko dute ekitaldi horretara. Aurkezpen ekitaldira joaten ez diren izangaiek edo programazio didaktikoa aurkezten ez duten izangaiek hautapen prozeduratik baztertuko dira. Ez da zilegi izanen izangaien orde bestea pertsona batzuk agertzea.

Oposizioaldiaren hasierako aurkezpen ekitaldia ez da 2021eko maiatzaren 10a baino lehenago izanen.

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez, izangaiei dei eginen zaie oposizioaren aurkezpen ekitaldira ager daitezen. Ebazpen hori jendaurrean jarriko da, www.nafarroa.eus helbidean, aurkezpen ekitaldia baino zazpi egun natural lehenago, gutxienez. Ebazpen horretan epaimahaien aurreko jarduketa noiz, zein ordutan eta non hasiko den adieraziko da.

Era berean, ebazpen bidez dei eginen zaie oposizioaldiko lehen proba egiteko, betiere proba baino zazpi egun natural lehenago. Epaimahai bat baino gehiago baldin badago espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, izangaia alfabetikoki ordenatuta esleituko zaizkio epaimahai bakoitzari, honela: Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak bi letra aterako ditu zozketaz, eta lehen deituraren hasieran bi letra horiek dituen izangaia izanen da lehena.

Izangaiei egin beharreko hurrengo deiak epaimahaien egoitzetan argitaratuko dituzte epaimahaiek, bai eta www.nafarroa.eus helbidean ere, deialdiaren fitxan, hurrengo ariketak hasi baino berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez.

Izangaiei dei bakarra eginen zaie epaimahaien aurreko jarduketak egiteko, eta agertzen ez direnak hautapen prozesutik kanpo geldituko dira. Horren ondorioetarako, taldekako ariketa baterako deiaren xede diren pertsonen deialdietan zehazten diren egun-orduetan agertu beharko dute epaimahaiaren aurrean. Bakarkako ariketetan, egun bakoitzerako deitutako izangaiek bertan egon beharko dute epaimahaiak jarduketak hasteko ezarritako orduan. “Ez aurkeztutzat” joko dira hasierako deia egiten denean agertzen ez diren oposiziogileak.

Izangaiek oposizioaldiko proben ariketa guztietara agertu beharko dute. Horietakoren batera agertzen ez badira, baztertu eginen dira hautapen prozeduratik.

Izangaia idatzizko ariketak epaimahaiaren aurrean ahoz azaldu edo irakurri behar ez baditu, bere anonimotasuna bermatuko da, plika sistema erabiliz. Izangaia identifikatzeko moduko arrastoak, sinadurak edo beste edozein seinale dituzten idatzizko ariketak baliorik gabe utziko dira, baita irakurtezinak direnak ere.

Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legean xedatutakoarekin bat, espezialitatea zein hizkuntzatan emanen den edo zein hizkuntza espezialitate den, hautapropa guztiak hizkuntza horretan egingen dira.

Izangaiek probetan parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak zozketaz bi letra aterako ditu eta lehenengo abizenaren hasieran bi letra horiek dituen izangaia hasiko da.

Oposizioaldiko probak honako hauek izanen dira:

2.2. Lehenbiziko proba:

Lortu nahi den espezialitatearen gaineko berariazko ezaupideak erakustea du helburu, eta bi zati izanen ditu, batera baloratuko direnak. Proba honen bi zatia egun berean egiten ahalko dira.

Lehenengo proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta bi zatietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izanen da emaitza, baldin eta izangaiek gutxienez 2,5 puntu lortu badituzte zati bakoitzean. Hautapen prozeduratik bazterturik geldituko dira lehen proba honetan gutxienez ere 5 puntu lortzen ez dituztenak.

A zatia.

Zati honetan ariketa praktiko bat egingen da, izangaia lortu nahi duen espezialitateari dagozkion trebetasun teknikoak menperatzen dituen eta prestakuntza zientifikoa baduen egiaztatzeko balioko duena.

II. eranskinean zehazten dira proba honen zehaztapenak espezialitate bakoitzerako.

Izangaiek hiru ordu izanen dituzte, gehienez, A zatia egiteko.

A zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, baldin eta izangaiek 2,5 puntu gutxienez lortzen badituzte.

B zatia.

Zati honetan, epaimahaiak espezialitateko gai-zerrendatik zozketaz ateratako bost gaitako bat idatziz garatu beharko du izangaia, deialdiko espezialitate guztiek 50 gai baino gehiago baitituzte.

Espezialitate bakoitzean aplikatuko diren gai-zerrendak indarrean daudenak dira, eta deialdi honen IV. eranskinean aipatzen dira.

Izangaiek bi ordu izanen dituzte, gehienez, B zatia egiteko.

B zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, baldin eta izangaiek 2,5 puntu gutxienez lortzen badituzte.

2.3. Bigarren proba:

Izangaiek bigarren proban parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak zozketaz bi letra aterako ditu eta lehenengo abizenaren hasieran bi letra horiek dituen izangaia hasiko da.

Izangaiek duen gaitasun pedagogikoa eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen baloratuko da. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.

Proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da (%30 A zatiari dagokio, eta %70 B zatiari), eta gainditu ahal izateko, izangaiek gutxienez ere bost puntu lortu beharko ditu, baldin eta 2,5 puntu lortu baditu gutxienez zati bakoitzean.

Izangaiek ordubete izanen dute gehienez unitate didaktikoa prestatzeko. Prestaketarako denbora bukatuta, programazio didaktikoaren defentsa hasiko da (hogeita hamar minutuz gehienez) eta unitate didaktikoaren azalpena (hogeita hamar minutuz gehienez). Izangaiaren parte-hartzea bukatu, epaimahaiak programazio didaktikoaren edo unitate didaktikoaren gainean behar beste galdera egiten ahalko dizkio izangaiari; eztabaida horrek hamabost minutu iraunen du gehienez. Izangai bakoitzak, guztira, ordu bat eta hamabost minutu izanen ditu gehienez programazioa eta unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko.

A zatia. Programazio didaktiko bat aurkeztea eta defendatzea.

Izangaiek prestatzen duen programazio didaktikoa epaimahaiari edo hautapen batzordeari eman beharko zaio haren aurrean aurkezteko ekitaldian, deialdi honen I. tituluko zazpigarren oinarriaren 1.2. apartatuan aurreikusitako tokian, egunean eta

orduan. Epaimahaiari programazio didaktikoaren kopia bakarra emanen zaio. Izangaiak berak aurkezten ez badu programazioa oposizioaren aurkezpen ekitaldian, hautapen prozeduratik kanpo geratuko da.

Programazio didaktiko hori prestatzean, deialdiaren V. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean defendatuko da. Izangaiak gehienez ere hogeita hamar minutu izanen ditu azalpen hori egiteko.

Azalpena egiteko, izangaiak programazio didaktikoaren kopia bat eramaten ahalko du, aurkeztu zuenaren berdin-berdina, bai eta egoki iruditzen zaion material osagarria ere, berak eramanda.

Programazio didaktikoaren aurkezpena eta defentsa zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko bigarren probaren kalifikazioaren %30 egingen du. Izangaiak 2,5 puntu lortu beharko dute gutxienez probaren zati honetan haztatu ahal izateko.

B zatia. Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea.

Unitate didaktiko bat prestatzea eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzea. Unitate hori izangaiak aurkeztutako programazio didaktikoarekin lotuta egon daiteke, edo espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik abiatuta, izangai bakoitzak aukeratzen duenaren arabera. Lehenengo kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak bere programaziotik hiru unitate aterako ditu zozketaz, eta horietako bat aukeratuko du. Bigarren kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak hiru gai aterako ditu zozketaz bere espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik, eta horietako bat aukeratuko du.

Unitate didaktiko hori prestatzean, deialdiaren V. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, orri batekoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Unitate didaktikoaren prestaketa eta azalpena zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko bigarren probaren kalifikazioaren %70 egingen du.

Izangaiek 2,5 puntu lortu beharko dute gutxienez probaren zati honetan haztatu ahal izateko.

2.4. Oposizioaldiaren azken kalifikazioa.

Fase hau osatzen duten bi probetan lortutako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa izanen da azken kalifikazioa, betiere proba guztiak gainditu badira.

Oposizioaldiko proben zati bakoitzaren puntuazioa ateratzeko, epaimahaian parte hartzen duten kide guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa egingen da.

Mahaikideek emandako puntuazioen artean hiru puntu oso edo gehiagoko aldea baldin badago, puntuaziorik altuena eta baxuena, besterik gabe, baztertuko dira, eta gainerako kalifikazioekin aterako da batezbestekoa. Epaimahaiko kide batek baino gehiagok ematen badute gehieneko eta/edo gutxieneko kalifikazioa, kasu horretan, gehieneko eta/edo gutxieneko kalifikazioa baizik ez da baztertuko.

Oposizioaldiko proba bakoitza bukatutakoan, izangaiek lortutako puntuazioen zerrenda jarriko dute epaimahaiek beren egoitzako iragarki-taulan, bai eta www.nafarroa.eus helbidean ere, deialdiaren fitxan.

Puntuazio horien kontra interesdunek erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte, 2 egun balioduneko epean. Kasu horretan, epaimahaia erreklamazioa berrikusiko du ebaluazio irizpideen arabera, eta aztertuko du kalifikazioetan akats material edo egitezkorik, transkripziokorik edo aritmetikorik egin den.

Erreklamazioak ebatzi eta gero, epaimahaiek izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak biltzen dituen zerrenda argitaratuko dute gorago adierazi diren toki beretan.

Izangaiek jarritako erreklamazioak ebazteko akta argitaratuko da epaimahaiaren egoitzako iragarki-taulan eta deialdiaren fitxan.

Behin betiko puntuazioen kontra interesdunek gora jotzeko errekurtsua jar dezakete hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, eta horren gaineko ebazpena ematerakoan kontuan hartuko da epaimahaiaren jarduketan ageriko akatsik, arbitrariotasunik edo agintearen desbiderapenik izan den.

Oposizioaldia gaingitzen duten izangaiei baizik ez zaizkie batuko lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioak.